

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

HAPO aldatzeko proiektua onestea eta hasierako onespina ematea xedapen-aldaketari, Udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13an egindako ohiko bilkuran:

1. HAPO aldatzeko proiektua onestea eta hasierako onespina ematea xedapen-aldaketari, Udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko.

2. Hasierako onespina ematea HAPOaren xedapen-aldaketari, zein udalerriko nekazaritza-eremuan berdeguneen eta espazio libre publikoen erabilera arautzeko baita.

3. Erabaki honen berri ematea jarraian adierazten diren organismoei, 45 egun baliodunen epean beren eskumeneko arloari buruzko txostena egin dezaten. Epea igarota erantzunik jaso ez bada, prozedura hau izapidetzen jarraituko da.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila.
- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Arabako Natur Institutua.
- GADEN, Grupo Alavés para la Defensa y Estudio de la Naturaleza.
- GAIA talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Álava.
- Recreativa Eguzkizaleak.

4. Aldaketaren dokumentazioa eta horren ingurumen-azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea, eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein erakundek edo interesdunek agiriak aztertu eta 45 eguneko epean egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan.

5. Udalerriko administrazio-batzarrei hasierako onespeneren berri ematea, hogeit hamar eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori igarotzen delarik erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, jarraitu egingo da tramitazioarekin.

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 16an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE